

EUSKARAREN EGOERA NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOAN

Koldo Asiron

NUPeKo (Nafarroako Unibertsitate Publikoa) irakaslea

1. IRAGANA

Nafarroako Unibertsitate Publikoa 1987ko apirilean sortu zen, Nafarroako Parlamentuak hura sortzeko legea onetsi zuenean, eta 1989-90 ikasturte-tik aurrera ematen ditu eskolak. Haren sorrera, batik bat, Nafarroan momentu hartan agintean zegoen PSOEek bultzatu zuen, ezkerraren laguntzaz eta UPNk jarritako trabak gaindituta, Opus Deiren Unibertsitatearen alternatiba izateko. PSOEek ezin zuen utzi unibertsitate mailako irakas-kuntza eskuinaren eskuetan, etorkizuneko politikariak, abokatuak, epai-leak, hortik aterako baitziren. Garbi dago, hortaz, zergatik sortu den Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

Lehen garai haietan, Unibertsitatearen gobernu erakundeak —Gobernu Batzordea, Klaustroa, Gizarte Kontseilua, etab.— oraindik eratu gabe zuedenez gero, Batzorde baten gain zegoen Unibertsitatearen gobernamendua eta, Batzorde horretako Buruak, Pedro Burillok, Errektorearen eginkizunak betetzen zituen. Batzorde hori eta Batzordeburua izan ziren euskarari zegokion erabaki bat hartzen lehenak: Magisteritzako edo Irakasletzako Haur Hezkuntza espezialitatearen euskarazko lerroa kentzeko erabakia, hain zuzen ere. Irakasletzako ikasketa horiek Zaragozako Unibertsitatearen pean zeuden urte batzuk lehenagotik, baina Nafarroako Unibertsitate Publikoa sortzearekin bat, honek hartu zituen bere gain; hau da, Nafarroako Unibertsitate Publikoan euskarazko titulazio oso bat badago, Zaragozako Unibertsitateak titulazio hori sortu zuelako da eta, hala

ere, lehenbiziko garaietan kendu nahi izan zuten. Zorionez, euskararen inguruko beste kontu batzuk ere tartekatu ziren orduan —Euskalerrria Irratiaren lizentzia, Vasconcearen Legearen kontrako mobilizazioak...— eta, horren ondorioz, nafarren presioa gogorra izan zen, Batzordearen asmoa bertan behera gelditu zen eta euskarazko lerro horrek aurrera egin ahal izan zuen.

Administrazioaren arloa Irakaskuntzarena bezalatsukoa zen garai hartan. Errotulu, inprimaki eta agiriren bat edo beste elebiz argitaratzen zen, Nafarroako Gobernuak Hizkuntz Politikarako Zuzendaritzako itzultzaileei, batzuetan, euskaratzeko eskatzen zitzaielako; baina Unibertsitateak ez zuen horretarako irizpide finkorik, ez giza baliabiderik ere, eta gehiengotik gaztelania hutsean argitaratzen ziren. Jendaurreko harreraren ere, berdin: zorte ona izanez gero, bazegoen langile euskaldunen bat matrikula egiteko edo argibideak emateko, baina langile hori ez zegoen hor euskalduna zelako edo bere oposizioan euskara jakitea baloratu ziotelako.

Gauzak horrela, hauteskundeak egin ziren Nafarroan eta UPN irten zen garaile; beraz, Alli jauna izango da Lehendakari. Unibertsitateak ez zuen oraindik ahalmenik Errektorea izendatzeko, eta Gobernuak Alberto Gonzalez irakaslea izendatu zuen kargu horretarako. Alberto Gonzalezekin eta Irakasleen Errektoreordea den Alejandro Arizkunekin, ordea, bultzatuko bat jaso zuen euskarak: espezifikoki euskararen egoera Unibertsitatean aztertu eta sustatzeko euskara-teknikari bat kontratatu zen. Badirudi Errektoreordeak bazuela asmorik euskara Unibertsitateko irakaskuntzan zein administrazioan bultzatzeko. Tamalez, teknikaria lanean hasi zen egunean, Allirekin izandako desadostasunak direla kausa, dimisioa aurkeztu zuten Alberto Gonzalezek eta bere talde osoak.

Gobernuak, orduan, hirugarren Errektorea izendatu zuen Unibertsitateak proposaturiko hiruko baten bitartez: Garcia Blasco izan zen hautatua. Garcia Blascok jarrera irekia zuen eta bere taldean bazen euskaldun eta euskaltzale bat: Javier Echeverria Idazkari Nagusia; plangintza modukorik ez zen egin, ordea, eta kontrataturiko euskara-teknikariaren lana gehienbat itzulpengintzara mugatu zen. Hala ere, kontratazio batzuk egin ziren Unibertsitateko komunitatearen hiru sektoreei euskara (ez euskarazko) klaseak eskaintzeko, dokumentazioaren arloan euskararen presentzia bermatzeko eta langileen euskalduntzea bultzatzeko; arautegi bat onartu zen Gobernu Batzordean, eta plangintza antzeko zerbait —Euskal Ikasketen Egitasmoa— erredaktatu zen, nahiz eta abian inoiz ez jarri.

Horrez gain, egoera instituzionala ere hasi zen aldatzen. Unibertsitatearen menpekotasuna Gobernuarekiko geroz eta txikiagoa zen, Unibertsitateko gobernu-erakundeak eratzen zihoazen neurrian. Unibertsitateko klustroa martxan zen, jada, eta erabaki zuen bere ihardueraren ondorioz ziren aktak, deialdiak eta gainerako dokumentazioa euskaraz egingo zirela eta edozein klustrokidek euskaraz hitz egiteko eskubidea izango zuela Klustroan. Klustro horrek berak hautatu behar zuen oraingoan hurrengo Errektorea, eta bi hautagaien botoen artean diferentzia txikiak

«Nafarroako Unibertsitate Publikoa 1987ko apirilean sortu zen, Nafarroako Parlamentuak hura sortzeko legea onetsi zuenean, eta 1989-90 ikasturteetik aurrera ematen ditu eskolak. Lehen garai haietan, Unibertsitatearen gobernu erakundeak oraindik eratu gabe zaudenez gero, Batzorde baten gain zegoen Unibertsitatearen gobernamendua. Batzorde hori eta Batzordeburua izan ziren euskarari zegokion erabaki bat hartzen lehenak: Magisteritzako edo Irakasletzako Haur Hezkuntza espezialitatearen euskarazko lerroa kentzeko erabakia. Zorionez, nafarren presioa gogorra izan zen, Batzordearen asmoa bertan behera gelditu zen eta euskarazko lerro horrek aurrera egin ahal izan zuen»

«Hauteskundeak egin ziren Nafarroan eta UPN irten zen garaile. Unibertsitateak ez zuen oraindik ahalmenik Errektorea izendatzeko, eta Gobernuak Alberto Gonzalez irakaslea izendatu zuen kargu horretarako. Alberto Gonzalezekin, eta Irakasleen Errektoreordea den Alejandro Arizkunekin, ordea, bultzadatxo bat jaso zuen euskarak: euskara teknikari bat kontratatu zen. Allirekin izandako desadostasunak direla kausa, dimisioa aurkeztu zuten Alberto Gonzalezek eta bere talde osoak. Garcia Blasco izan zen Errektore hautatua. Garcia Blascok jarrera irekia zuen eta bere taldean bazen euskaldun eta euskaltzale bat: Javier Echeverria Idazkari Nagusia, plangintza modukorik ez zen egin, kontrataturiko euskara-teknikariaren lana gehienbat itzulpengintzara mugatu zen»

zeudenez gero, biak saiatu ziren «euskararen» botoak berenganatzen beste kontrapartida batzuk eskainiz. Garcia Blasco irten zen garaile, eta bere taldean euskararen ardura izango zuen konfiantzazko kargua, Hizkuntz Normalizaziorako Laguntzailearena, izendatu zuen. Euskarak, garatua izan zedin, bazuen lehen aldiz Errektore-taldearen barruan kargu espezi-fiko bat. Bitartean, Unibertsitateko behin betiko Estatutuak onartu behar ziren Klaustroan eta, Garcia Blascoren taldearen laguntzaz, euskarari buruzko Titulu oso bat onetsi zen. Bertan, euskaldunok Unibertsitatean mintzatzeko, ikasteko, irakasteko, ikertzeko eta lan egiteko ditugun eskubideak jaso ziren modu onargarri batean, Hizkuntz Normalizaziorako Batzordea eta honen eginkizunak finkatu ziren, eta Unibertsitateak Hizkuntz plangintza bat egin beharra duela ezarri zen.

Estatutuetan finkaturiko Hizkuntz Normalizaziorako Batzordea berehala hasi zen lanean, eta, hilabete gutxiren ondoren, Normalizaziorako plana burutua zuen, Gobernu Batzordeak onar zezan. Plan horretan hainbat titulaziotako euskarazko lerroak eta horretarako behar diren kontratazioak finkatu ziren, administrazioaren euskarazko iharduera ezarri zen, langile euskarazko prestakuntza eta hizkuntz eskakizunak finkatu ziren, diseinu soziolinguistiko baten oinarriak zehaztu ziren, argitalpen politika baten ildoak jarri ziren abian, euskara-teknikarienezko mintegiak antolatu ziren, etab. Plana 1995.eko otsailaren 6an onetsi zuen Gobernu Batzordeak, eta hurrengo hiru urteetarako hizkuntz politika zehaztu zuen. Baina hauteskunde-garaia berriro iritsi zen Unibertsitatera eta gaur egun Errektore dugun Antonio Perez Prados irakaslea irten zen garaile. Perez Pradosek Hizkuntz Normalizaziorako beste Laguntzaile bat eta beste Batzorde bat izendatu eta Gobernu Batzordeak onetsitako Plana bertan behera utzi zuen, nahiz eta, Gobernu Batzordeak hura onartu zuen momentutik, garatu beharra duen; hala ere, bigarren Batzordeak lanari ekin zion eta berehala premiazko proposamen batzuk egin zizkion Errektore-taldeari, baina honek bere gain hartu eta Gobernu Batzordera eraman beharrean, proposamenok bazterrean utzi eta beste neurri batzuk hartu zituen euskararen garapenaren kalterako. Gauza bera bi aldiz gertatzean, hau da, Batzordearen proposamenei muzin egin eta beste erabaki batzuk hartzean, Normalizaziorako Batzordeko kideek —Batzordeburuak izan ezik— dimisioa aurkeztu zuten. Estatutuen arabera plana egin beharra zegoenez gero, Batzordeburuak beste plan (?) bat burutu zuen, baina hain da txarra ezen Errektore-taldeak berak ez baitu aintzat hartu; horrenbestez, inpassu batean gelditu zen dena: ez dago planik, ez dago batzorderik eta, beraz, ez dago deus ere Errektorea euskararen egoera aldatzeko zerbait egitera bultzatzen duenik. Errektorearentzat oso egoera eroso da. Horregatik, Gobernu Batzordeko kide batzuek ohiz kanpoko bilera bat egiteko behar diren sinadurak bildu eta Errektoreari gogorarazi zioten beste Batzorde bat izendatu behar zuela zorioneko plana aurrera ateratzeko. Behartuta, hala egin zuen Errektoreak, eta Batzorde berria ez dakit zenbatgarren plana egiteko lanetan hasi zen.

Sei hilabeteren ondoren, Errektore-taldeari aurkeztu zioten plana, honek

Gobernu Batzordera eraman zezan, baina orduan Errektoreak Unibertsitate komunitateko erakunde eta ordezkari desberdinei igorri zien aipatu plana nahi zituzten zuzenketak egin zituzten. Unibertsitate honetan arautegi, plangintza, egitasmo eta erabaki asko hartu edo burutu dira, baina lehenbiziko aldia zen horrelako zerbait egiten zena. Eta hori nahikoa ez balitz, azpibatzerde bat eratu zuen azken testua «adosteko». Unibertsitatearen barruko zein kanpoko jendea dago azpibatzerde horretan, eta euskarari buruzko oso ikuspegi desberdinak daudenez, ezinezkoa izan zen adostasunik lortzea. Plana, noizbait ere, Gobernu Batzordera eraman zen ohiz kanpoko bilera batera, uztailaren 30ean! Eztatidaren ondoren Errektoreak planteatu zuen ea zuzenketarik aurkeztu nahi zuten batzordekideek, eta inork aurkeztu ez zuenez gero, Errektoreak berak aurkeztu zuen bi orriko zuzenketa, planaren ordeztu onartua izan zedin. Harriduraren harriduraz, eztabaida piztu zen batzordekideen artean, botazioa egin zen eta berdinketa gertatu zen. Errektoreak desadostasuna aitzakiatzat hartuta, aztergaia erretiratu eta bukatutzat eman zuen bilera. Hori da egindako azken planaren bizitza laburra. Gero, irailean, aipatu bi orriak onartu ahal izateko behar zituzten botoak lortzeko egin beharreko elkarrizketak egin da, neurri alternatibo horiek onartu ziren. Hasieran bezala gaude berriro, baina hamar urte beranduago.

2. ORAINA

a) Egitura

Gaur egun honelaxe da euskararen organigrama Unibertsitatean:

NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA. HIZKUNTZA
NORMALIZAZIO-EGITURA

HIZKUNTZA-NORMALIZAZIO-ATXIKITZA

- Hirurteko Plangintzaren hizkuntza-politikaren koordinazioa.
- Euskarazko irakaskuntzaren garapena.
- Euskarazko Unitate Teknikoa.
- Unibertsitatearen presentzia eta harremanak euskararen eremuaren barruko erakunde publiko eta pribatuekin.
- Hizkuntza-normalizaziorako lanak eta agiriak.
- Euskararen sarrerak administrazio iharduera eta aribidetan.
- Langile ez-irakasleen hizkuntz eskakizunen azterketa eta proposamena.
- Euskararen erabileraren gaineko koordinazioa.

ATXIKIA

«Euskarak, garatua izan zedin, bazuen lehen aldiz Errektore-taldearen barruan kargu espezifiko bat. Euskarari buruzko Titulu oso bat onetsi zen. Bertan, euskaldunok Unibertsitatean mintzatzeko, ikasteko, irakasteko, ikertzeko eta lan egiteko ditugun eskubideak jaso ziren. Hizkuntz Normalizaziorako Batzordearen eginkizunak finkatu ziren. Hizkuntz Normalizaziorako Batzordeak hilabete gutxiaren ondoren, Normalizaziorako plana burutua zuen. Plan horretan hainbat titulaziotako euskarazko lerroak finkatu ziren, administrazioaren euskarazko iharduera ezarri zen, langileen euskarazko prestakuntza eta hizkuntz eskakizunak finkatu ziren, diseinu soziolinguistiko baten oinarriak zehaztu ziren, argitalpen politika baten ildoak jarri ziren abian, euskara-teknikarientzako mintegiak antolatu ziren»

**«Hauteskunde-garaia
berriro iritsi zen
Unibertsitatera eta gaur
egun Errektore dugun
Antonio Perez Prados
irakaslea irten zen
garaile. Perez Pradosek
Hizkuntz
Normalizaziorako beste
Laguntzaile bat eta beste
Batzorde bat izendatu eta
Gobernu Batzordeak
onetsitako Plana bertan
behera utzi zuen. Bigarren
Batzordeak premiazko
proposamen batzuk egin
zizkion Errektore-
taldeari, baina honek bere
gain hartu eta Gobernu
Batzordera eraman
beharrean, proposamenok
bazterrean utzi eta beste
neurri batzuk hartu
zituen euskararen
garapenaren kalterako.
Normalizaziorako
Batzordeko kideek
—Batzordeburuak izan
ezik— dimisioa aurkeztu
zuten. Gobernu
Batzordeko kide batzuek
sinadurak bildu eta
Errektoreari gogorarazi
zioten beste Batzorde bat
izendatu behar zuela
plana aurrera ateratzeko.
Behartuta, hala egin
zuen»**

HIZKUNTZA NOR-
MALIZAZIORAKO
ZERBITZUA

EUSKARARAKO
UNITATE TEKNI-
KOA

-Arduraduna
-Itzultzailea
-4 Teknikari
-Administrari Ardu-
raduna
-4 Bekadun

HIZKUNTZA NOR-
MALIZAZIORAKO
BATZORDEA

-Atxikia
-3 Irakasle
-2 Langile
-2 Irakasle
-EUEko Arduradu-
na

-Ikerketa eta irakaskuntzarako materialaren sorrera euskaraz.

-Unibertsitate mailako elkarateekiko harremanak euskararen eremuaren barruan.

-Unibertsitate-zabalpeneko ekintzak hizkuntza normalizaziorako.

-Euskara ikastaroen sustapena.

-Unibertsitate komunitateko kideak euskaraz hitz egiteko gaitzea.

-Euskararen erabileraren normalizazioa.

-Hizkuntz gaietan aholku ematea.

-Hizkuntza Normalizaziorako Plangintza eta honen jarraipena.

-Unibertsitate barnean hizkuntz errealitateari buruzko argibideak izatea.

Itzulpenak egitea, administrazio agirietan euskararen erabilera zuzena bermatzea eta esleitzen zaion beste edozein eginkizun tekniko.

Unibertsitatean euskararen hizkuntza normalizaziorako politika egin, proposatu eta jarraitzeko eginkizun guztiak.

Honez gain, maila ez-instituzionalean talde batzuk lanean ari dira Unibertsitatean euskararen garapenaren alde: ikasleek osatutako Euskara Taldea, irakasleak, langileak eta ikasleak barnebiltzen dituen EHUN taldea eta Unibertsitatea eta gizartea euskararen esparruan hurbiltzeko sortu berria den EUSKARA UNIBERTSITATERA mugimendua.

b) Demolinguistika

Unibertsitateak urtero egiten duen inkestaren arabera, 1992-93 ikasturtean 700 inguru ziren ikasle euskaldunak, %8, gutxi gora-behera. Lau urte beranduago, 1996-97 ikasturtean, 1553 ikasle euskaldun ari ziren ikasten Unibertsitate Publikoan, %14,5. Hau da, lau urtetan bikoiztu egin da ikasle euskaldunen kopurua. Gainera, kontuan hartu behar da titulazio batzuetan portzentaia hori nabarmen igotzen dela, esaterako Nekazaritzako Ingeniaritzan (%32) edo Nekazaritzako Ingeniaritza Teknikoan (%30).

Kopuru hauek, ordea, ez datoz bat irakasleen kopuruekin. Gaur egun 43 irakasle euskaldun daude Unibertsitatean (%7), eta erdiak baino gehiagok Irakasletzako euskarazko lerroan ematen ditu eskolak. Oso gutxi dira titulazio teknikoetan, ikasle euskaldun gehien dituztenetan, alegia, dau-denak.

Administrazio eta Zerbitzuetako langileen arloan, antzekoa da egoera. Gutxi gora-behera, 30 langile euskaldun daude Unibertsitatean (%10), eta beste 40 bat, euskara ikasteko eskolak hartzen ari dira (%15).

Azpimarratu beharrekoa da irakasleen kasuan funtzionarioentzako lanpostuak betetzeko euskara ez dela kontuan hartzen, eta kontratatuentzako lanpostuetan, merezimenduen atalean, 0,5 puntu ematen zaizkio EGA duenari. Langileen kasuan, oraindik ez da hizkuntz eskakizunik ezarri eta, beraz, ez dago lanposturik euskara jakitea nahitaezko baldintza duenik. Oposizioetan, puntuazio osoaren %5 ematen zaio EGA duenari.

d) Irakaskuntzak

Jakina denez, euskarazko titulazio bakarra dago Unibertsitatean, Irakasletzako, bi espezialitatetan: Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza. Gai-nontzeko titulazioetan irakasgai solteak daude euskaraz, hamar bat edo, guztira, gehienetan irakasle euskaldunen bat dagoelako eta irakasleak berak hala nahi izan duelako, eta ez instituzionalki bultzatua edo erabakia izan delako.

Ikasketa Planez kanpo irakasgai batzuk ematen dira euskaraz, hautaketa libreko kreditu gisa, hala nahi izan duen irakasle euskaldunak eskaini duelako. Honela ematen dira Dialektologia, Onomastika eta besteren bat.

e) Gainerako arloak

Administrazioaren alorrean ere, ez da Estatutuek agindutakoa betetzen ari. Dokumentazioa, inprimakiak etab., elebiz azaltzen dira batzuetan tokian tokiko funtzionarioak nolabaiteko sentsibilizazioa agertzen badu; bestela, gaztelania hutsean. Lanpostuen hizkuntz eskakizunak ez dira

«1992-93 Ikasturtean 700 inguru ziren ikasle euskaldunak, %8, gutxi gora-behera. Lau urte beranduago, 1996-97 ikasturtean, 1553 ikasle euskaldun ari ziren ikasten Unibertsitate Publikoan, %14,5. Egun 43 irakasle euskaldun daude Unibertsitatean (%7). Administrazio eta Zerbitzuetan, gutxi gora-behera, 30 langile euskaldun daude (%10), eta beste 40 bat, euskara ikasteko eskolak hartzen ari dira (%15). Euskarazko titulazio bakarra dago Unibertsitatean, Irakasletzako, bi espezialitatetan: Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza. Gai-nontzeko titulazioetan irakasgai solteak daude euskaraz, hamar bat edo, guztira, gehienetan irakasle euskaldunen bat dagoelako eta irakasleak berak hala nahi izan duelako, eta ez instituzionalki bultzatua edo erabakia izan delako»

«Administrazioaren alorrean ere, ez da Estatutuek agindutakoa betetzen ari. Dokumentazioa, inprimakiak etab., elebiz azaltzen dira batzuetan tokian tokiko funtzionarioak nolabaiteko sentsibilizazioa agertzen badu; bestela, gaztelania hutsean. Etorkizunari begira ez gara batere baikor, epe laburrera garbi baitago Errektore-talde honek deus ere ez egiteko asmo irmoa duela, edozeren gainetik. Gainera, badirudi agintea utzi baino lehen (bi urte barru) gauzak lotuta uzteko gogoa ere badutela eta, horregatik, UPNrekin Unibertsitaterako adostu omen duten legea euskara arautzeko, eta Unibertsitatean zabaltzen ari den zurrumurrua Estatutuak eta euskararen titulua aldatzeko ekimena hartuko dutela»

oraindik finkatu eta jendaurreko harreran ez da bermatzen euskaraz mintzatu ahal izatea. Publizitatea gaztelania hutsean egiten da komunikabide gehienetan, eta argitalpen instituzionaletan ere gaztelania da nagusi.

3. GEROA

Etorkizunari begira ez gara batere baikor, epe laburrera garbi baitago Errektore-talde honek deus ere ez egiteko asmo irmoa duela, edozeren gainetik. Gainera, badirudi agintea utzi baino lehen (bi urte barru) gauzak lotuta uzteko gogoa ere badutela eta, horregatik, UPNrekin Unibertsitaterako adostu omen duten legea euskara arautzeko, eta Unibertsitatean zabaltzen ari den zurrumurrua Estatutuak eta euskararen titulua aldatzeko ekimena hartuko dutela.

Hala ere, epe ertainera, bi urte barru, Klaustorako eta Errektore izateko hauteskundeak izango ditugu Unibertsitatean eta baliteke egoera, zertxobait bada ere, aldatzea. Bestalde, garbi dago euskararen aldeko presioa urterik urte handiagoa izango dela eta 10-15 urteren buruan gaur egungo euskaldun kopurua bikoiztuko dela, orain maila ez-unibertsitarioetako D ereduan ditugun portzentaia Unibertsitatera iristen direnean. Badakigu jakin, horrek ez duela bermatuko benetako Unibertsitate elebiduna lortzea, horren adibidea ondo-ondoan dugu-eta; baina, agian, bestela jokatzeraz bultzatuko ditu Unibertsitateko agintariak.

Bitartean, jarraitu beharko dugu ditugun baliabide guztiak erabiltzen gauden tokietatik, bai maila instituzionalean —dela Hizkuntz Normalizaziorako Batzordetik, dela Gobernu Batzordetik, dela Klaustrotik— bai ez-instituzionalean ere, euskararen aldeko talde nahiz mugimenduetatik.